

Euskal Herriko biztanleria

Urteak	HEGOALDEA					IPARRALDEA					Euskal Herri Osoa
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Guztira	Lapurdi	Nafarroa Beherea	Zuberoa	Guztira		
1900	96.385	311.361	195.850	307.669	911.265	111.953	39.187	22.420	173.560	1.084.825	
1960	138.934	754.383	478.337	402.042	1.773.696	149.824	34.490	20.633	204.947	1.978.643	
1970	204.323	1.043.310	631.003	464.867	2.343.503	166.197	33.126	19.484	218.807	2.562.310	
1981	260.580	1.181.401	692.986	507.367	2.642.334	188.803	30.434	17.726	236.963	2.879.297	
1991	272.447	1.155.106	676.488	521.940	2.625.981	203.696	29.838	16.627	250.161	2.867.142	

Euskal Herria bere osotasunean aztertu beharra

IZENBURUA Euskal Herriko demografiaren bilakaera duela, Euskal Herri osoko biztanlegoa azterzen duen ikerketa burutu berri dute Siadeccon. Azterketarako iurrak, EAEko Euskar, Nafarroako Gobernuko Ekonomia Saila eta Frantziako INSEE erakundeak izan dira.

Datuak begira, 1991. urtean Euskal Herriko biztanleen %93,1 Hego Euskal Herrian bizi zela ikus daiteke (2.625.981 pertsona guztira). Ipar Euskal Herrian, berriz, %8,7 bizi da (250.161).

Nafarroak, bestalde, 521.950 biztanle ditu, Hego Euskal Herriko biztanlegoaren %20. Azken hau kontuan hartzeko moduko datua da, Nafarroak Euskal Herriko lurraldearen erdia inguru bera baitu.

Biztanlegoari buruzko lan hau, Euskaltzaindiak 1975ean eskatutako lan haren ondoren, Siadecok Euskal Herria bere osotasunean harturik eginiko bigarrena da. Gizarte arazoan ikerketarako enpresa honetan, dena den, argi daramate Euskal Herria bere osotasunean harturik egin beharreko azterketen beharra. Eia horren erakusgarri, inork eskatu gabe, lan eskergea hau burutzea izan da.

Ez dirudi, hala ere, instituzioek horrelako azterketen premia hain garbi daramatenik. Euskal Herriko arazoak bere osotasun geografiko horretan ikertu eta ezagutzeko. Akitania, EAE eta Nafarroako instituzioen artean sinaturiko akordioetan horrelakoen aipamena egin arren, keinu simbolikoak dirudite beste ezer baino.